



ZAILTASUNAK ETA ADINGABEKOAK ARDURAPEAN DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK

2021. URTEA OINARRIAK

1.- LAGUNTZEN HELBURUA:

Hurrek, nerabeek, euren ezaugarriengatik, biztanleria sektore oso zaugarria osatzen dute. Adingabe guztien artean, ordea, badira, aldi berean, arrisku bereziko egoeretan daudenak. Dirulaguntza hauek egoera ahuletan dauden edo premia bereziak dauzkaten haur, nerabe eta beraien familiei zuzendurik daude eta adingabekoen babesa, gizarteratzea sustatu eta marginazioari aurre egitea dute helburu.

2.- PRINTZIPIO NAGUSIAK

- Beti esku hartze egitasmo bati loturik egongo diren laguntzak izango dira.
- Izaera subsidiarioa dute eta hala dagokionean, indarrean dagoen legerian aurreikusita dauden, eta onuradunari edota bizikidetzaren unitateko edozein kideri dagokien arlo ekonomikoko gizarte baliabide eta prestazioen osagarri dira.
- Laguntza puntualak edo epe bati lotutakoak dira
- Beste ezinak dira eta, beraz, ezin izango dira betebeharren berme gisa eskaini; ez da lagatzerik egongo, ez osoki, ez partzialki; eta ez da konpentsatzerik ez deskontatzerik egongo, bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik. Ez da atxikitzerik edo bahitzerik izango, ezartzekoa den Estatuko lege orokorrean aurreikusitako muga izan ezik.
- Ez dirulaguntza bera bakarrik, eta beste dirusarrerekin batuta ere, ezin izango da izan, inoiz ere ez, lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.
- Laguntza hauek emateko, horretarako den kreditua egon behar du esleitua udal aurrekontuetan.
- Laguntzek behar hauei erantzuteko izango dira:
 - a) Haurtzaindegi edo ikastetxera joateko laguntzak, gizarte edo familia egoerak hala eskatzen duenean.
 - b) Eskola-jangelarako, eskola materialerako eta haurren udalekuetarako laguntzak gizarte edo familia egoerak hala eskatzen duenean.
 - c) Eskolaz kanpoko laguntzak eta aisialdiko ekintzak gizarte edo familia egoerak hala eskatzen duenean.
 - d) Laguntza bereziak; bestelako edozein laguntza, betiere Udaleko Gizarte Langilearen balorazio txostenaren baitan, adingabekoentzat behar edo premiazko egoerak daudenean.



3.-DIRU ATALA ETA 2021. URTERAKO AURREIKUSITAKO AURREKONTUA:

1 1001 480 231 00 04 2021 Dirulaguntzak Zailtasunak 30.000€

4.-ONURADUNAK: BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

BALDINTZAK:

- a) Oiartzungo udalerrian erroldatua egotea.
- b) Familian , aipatutako beharra duten 18 urtetik beheragoko kideak izatea, beti ere aldeztu aurretik gizarte zerbitzuen arazoibidezko txostenaren baitan.
- c) Beharrei aurre egiteko ez izatea baliabide ekonomiko nahikorik, beti ere aldeztu aurretik gizarte zerbitzuen arazoibidezko txostenaren baitan.
- d) Esku hartze egitasmoa sinatuta izatea

BETEBEHARRAK:

1. Jasotako diru-laguntzak eskatutako helburuetarako erabili behar dira.
2. Diru-laguntzak eskuratzeko bete beharreko baldintzei buruzko aldaketan berri eman
3. Esku hartzeko plana gizarte langilearekin batera adostea.
4. Edozein aldaketa esanguratsu jakinarazi beharko dio Gizarte Zerbitzuari (lanaren lorpena, egoera ekonomikoaren aldaketa, bizileku aldaketa...)
5. Hiru hilero bere egoeraren jarraipena egin Gizarte zerbitzuekin batera.
6. Bidegabeki jasotako diru-laguntzak edota oker jasotako kopuruak itzultzea.
7. Jasotako laguntzak modu honetan justifikatu beharko dira :
 - Laguntzaren onuradunak ezinbestean aurkeztu beharko ditu egindako gastuen fakturak edo/eta jatorrizko ziurtagiriak (urte bukaeran).
 - Gastuak egin izanaren frogagiriak pertsona fisiko edo juridiko igorlearen identifikazioko eta lokalizazioko oinarritako datuak, haren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo nortasun-agiri nazionala (NAN), gastu-kontzeptua eta horiek dagokien zenbatekoa jaso beharko ditu.

5.-PROZEDURA:

Eskaera eta dokumentazioa Oiartzungo gizarte zerbitzuetan aurkeztuko da eskaera,. Eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu behar dira, onuradunaren ezaugarriak egiaztatze aldera:

1. Eskatzailearen NANaren fotokopia, eta beharrezko denean, familia-unitateko gainerako kideen NANaren fotokopiak.
2. Familia-liburuaren fotokopia eta/edo beharrezko denean, zaintza eta babespea egiaztatzen duten agiriak.
3. Familia-unitateko kide guztien dirusarreraren egiaztapenak.



4. Eskatzailearen ondasun higigarri eta higiezinei buruzko egiaztagiria, eta beharrezko denean, familia-unitateko kide guztienak.
5. Diru-laguntza zein gastuetarako eskatzen den; gastu horretarako diren fakturak edo aurrekontuak.
6. Beharra egiaztatzeko baliagarria den beste edozein dokumentu eta/edo gizarte langileak beharra egiaztatzeko eskatzen duen dokumentua.
7. Era berean, administrazio-espeditentea osatze aldera, eskatzaileak aurkezten duen dokumentazioa Oiarzungo Udalak osatuko du, dokumentu hauek gehituta:
 - o Inskripzio-ziurtagiria.
 - o Oinarrizko gizarte zerbitzuek egindako txostena.

Espeditentearen izapidetzea

1. Gizarte zerbitzuetako teknikarien lan taldeak eskaeraren balorazioa, txostena eta proposamena egingo dute.
2. Proposamen teknikoak Gizarte Ongizate Batzordeari helaraziko zaio
3. Ebazpena alkateak edo izendatzen duen organoak sinatuko du.

6.- DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEA, ZURITZEA, BERTAN BEHERA UZTEA ETA ITZULTZEA

Ordaintzea: Diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritakoa betez egingo da ordainketa. Interesdunak aldez aurretik baimena eman ondoren, eta kasuaren arduradunak adostasuna eman ondoren, ordainketa zuzenean ordain dakieke diru-laguntza xede duen zerbitzu emaileei, pertsoneri nahiz entitateei..

Zuribidea: Diru-laguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak eta helburuak betetzen ari direla zuritu beharra dago, eta hala jasoko da diru laguntza emateko ebazpenean.

Diru-laguntza bertan behera uztea: Diru-laguntza aldi-aldi hainbat ordainketatan egiten denean, aurretik onuradunari entzunaldia eskaini ondoren, berraztertze aukera izango da, eta ordaintzeko gelditzen diren kopuru batura gutxitu ahal izango da, baldin eta azken ordainketa egin aurretik inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

- 1.- Esku hartzeko plana sinatu duen interesduna hiltzea.
- 2.- Onuradunak diru-laguntzaren zenbateko ez ordainduari uko egitea.
- 3.- Diru-laguntza emateko eskatzen diren baldintzetako bat ez betetzea.
- 4.- Esku hartzeko plana ez betetzea.
- 5.-Iruzur egitea
- 7.- Onartutako diru-laguntza, adostutako helburuak betetzeko ez erabiltzea.

Diru-laguntza berraztertze espeditenteari ekin ondoren, ordainketak hilabete batez etengo dira, kasuaren arduradunak hala proposatuta eta ordainketa eteteko arrazoiak zuzentzen ez diren bitartean ez da ordainketarik egingo. 12 hilabete igaro eta egoera arrazoitzen ez bada, iraungi egingo da prestazioa jasotzeko eskubidea.

Iruzur kasuetan laguntza eskaera bertan behera utziko da. Egoera larri baten aurrean epe hau berrikusi daiteke.



Itzultzea:

- Udalak honako hau jakinaraziko dio onuradunari: prozedura horri hasiera eman zaiola, zein arrazoietan oinarritzen den, eta zein ondorio ekonomiko izan ditzakeen, baita ebazpena hartzeko eta jakinarazteko epea eta administrazio-isiltasunak eragin ditzakeen ondorioak ere. Interesdunek, hilabeteko gehieneko epean, egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin ahalko dituzte.

- Alegazio horiek jaso ondoren, edo horretarako epea amaitu eta oraindik ez bada alegaziorik egin, Udalaren organo eskudunak hilabete bat izango du jaso behar ez ziren prestaziorik jaso ote den edota ez dagozkion neurrian jaso ote diren erabakitzeko ebazpenaren bitartez. Ebazpen horrek arrazoituta egon beharko du.

- Jaso behar ez zen prestazioren batekin edo ez dagokion neurrian jasotako prestazioren batekin lotutako egoera dagoela ebazten bada, aurreko paragrafoan aurreikusitako ebazpenean dagozkion kopuruak interesik gabe itzuli behar direla jasoko da, interesdunak betebehar hori gauzatzeko izango duen gehieneko epea zehaztuz, baita egin beharreko hileko itzulketen kopurua eta zenbatekoa ere. Aipatutako betebeharra betetzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio

- Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, Udalak indarreko prestazioetatik zati bat ofizioz konpentsatzeko edo kentzeko aukera izango du, horiek onuradunaren bizikidetzak unitateko edozein kideri dagozkiola ere. Konpentsazio edo kenketa hori Udalak egin beharko du, epeak, kopurua eta zenbatekoa ezarriz.

- Dirua itzultzeko epea.

Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedurari hasiera ematen zaionetik zenbatzen hasita. Epe horretan inolako esanbidezko ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, prozedura iraungiko da, eta emandako ebazpenak jardunak artxibatzeko aginduko du. Prozedura pertsona interesdunaren erruz geldiarazten den kasuetan, ebazpena emateko eta jakinarazteko epea ere eten egingo da.

Oiartzunen, 2020ko abenduaren 7a.